



Amorrua

1

Begiratu **amorruari** dagokion irudiari (Emoziotegiko 16-17. orrialdeak), eta erantzun galderei.

● Nola uste duzu sentitzen dela txoria?

● Zer gertatuko zitzaion?

● Zer uste duzu egin dezakeela hobeto sentitzeko?

2

Behatu arretaz Emoziotegiko 16-17 orrialdeetako txoriari, eta deskribatu haren aurpegiera.



3 Markatu **amorr**u esanahia duten hitzak.

- amorrazioa pazientzia jakinduria grina
 haserre bizia sumindura errespetua haserre

4 Irakurri Emoziotegiko 16. orrialdeko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra)**, dagokionaren arabera.

- Amorrua sentitu aurretik, litekeena da sumina sentitzea.
 Amorrua baliagarria da zibilizazioarentzat.
 Amorrua egoeraren jabe egiten denean, animalien gisan jokutzen dugu.
 Amorrua pixkanaka etortzen da; badatorrela nabaritu dezakezu.
 Zerbaitek gaizki sentiarazten zaituenean, amorrua senti dezakezu.
- Orain, zuzendu esaldi okerrak.

5 Testu honen arabera, amorruek okerreko erreakzio bat eragin dezake. Zer da **erreakzio** bat? Markatu.

- Ekintza bati erantzuteko egiten den ekintza bat da.
 Behin eta berriz egiten den ekintza bat da.
 Nahi gabe egiten den ekintza bat da.
- Orain, idatzi esaldi baten **erreakzio** hitza erabiliz.

6 Emoziotegiko 16. orriko testuaren arabera, zenbait ekintzak **zure ongizatearen kontra egiten dute**. Zer esan nahi du horrek? Azpimarratu esanahi bera duten hitzak.

- **kontra egin** → saiatu artatu eraso egin
- **ongizatea** → aberastasuna erosotasuna luxua

7 Idatzi **Z (zuzena)** edo **B (bidegabea)**, iruditzen zaizun arabera.

- Zu zigortu zaituzte zure arrebak egin duen zerbaitengatik.
- Ezin zara jolastera joan etxeko lanak bukatu ez dituzulako.
- Ume ilegorrien jolas-orduak 10 minutu gehiago irauten du.
- Ikasturtea gainditzen duten ikasleak soilik igaroko dira hurrengo mailara.
- Jolastu gabe geratuko zara gaizki portatu zarelako.
- Jolastu gabe geratuko zara ondo portatu zaren arren.
- Azaldu zergatik iruditzen zaizkizun bidegabeak **B** jarri diezun egoerak.

8 Ordenatu letrak esaldia osatzeko. Gero, berridatzi esaldia.

Jonek amorrua sentitzen du. → Jon S E R A E R H dago.

9

Irakurri Beñati eta Garaziri gertatzen zaiena, eta erantzun galderari.

Garazi eta Beñat neba-arrebak dira. Biei izugarri gustatzen zaizkie patata frijituak. Egun batean, sukaldean daude, eta mahaia prestatzen laguntzen ari dira. Garazik patata frijituz betetako ontzi bat ikusi du, eta batzuk hartu ditu gurasoak ohartu gabe.

Geroago, bazkaltzen ari direnean, aitak patata-kopuru bera eman dio bakoitzari. Beñati iruditu zaio hori ez dagoela ondo, baina ez du ezer esan.

- Zer da Beñati gaizki iruditu zaiona? Zergatik?

- Zergatik uste duzu Beñatek ez duela ezer esan? Egokia iruditzen zaizu haren jarrera?

- Zer egingo zenuke zuk Beñaten egoeran bazeunde?

10

Azpimarratu, kasu bakoitzean, **amorruz** erreakzionatzen duen pertsonaren izena. Gero, idatzi egoera bakoitzerako izan litekeen beste erreakzio bat.

- Ane banku batean eserita dago. Mikel patinak jantzita dator, eta Aneren kontra tupust egin du. Anek bultza egin dio, eta Mikel erori egin da.

-
- Ane banku batean eserita dago. Mikelek bultza egin dio. Anek alde batera baztertzeko eskatu dio. Mikelek garrasika esan dio ez duela nahi.

-
- Anek iletik tira dio Mikeli adarra jotzeko. Mikelek garrasika esan dio geldirik egoteko, eta haren bizkar-zorroa hausten hasi da.

11

Idatzi **amorrua** mendean hartzeko egin ditzakezun bost gauza.



Amorrúa

OHARRAK

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html.